

Andersen izango da Mutrikuko liburu asteko protagonista

Erakusketa bat, tailerrak eta ikuskizun bat egongo dira bihartik ostirala bitarte

Mutriku. Hans Christian Andersen ipuinetako idazle danimarkar ospetsua izango da bihar hasiko den Mutrikuko Liburu Asteko protagonista. Ekitaldi ezberdinekin goatzeko aukera izango dute herritarrek datozen egunotan, beti ere, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko eta Andersen inguruan.

Edonola ere, herriko liburutegiak udaleko Kultura sailaren laguntzarekin antolatutako egitaraua bihar arratsaldean jarriko da abian, Zabel kultur etxean datorren ostiralera arte ikusgai izango den H. C. Andersen izenburuko erakusketaren inaugurazioarekin.

Bestalde, hurrei zuzendutako tailerrak egongo dira asteartean eta asteazkenean, 17.00etatik 19.00etara, Zabelen.

"Hiru eta sei urte artekoentzat marrazketa txokoa egokituko dute eta 6 eta 10 urte artean dituztenentzat, irakurketa txokoa", azaldu dute liburutegiko arduradunek.

Mutrikuko 2007ko Liburu Astearekin amaitzeko, Mikelazulo kultur elkarteak hiru poema luze eta bi antzezlan laburrekin osatutako Hitzontzia: testu laborategia izeneko ikuskizuna aurkeztuko du ostegunean Zabelen. Ekitaldi hori 19.00etan hasiko da.

Udaleko Kultura sailak herritar guztiak animatu nahi ditu okasiorako antolatutako ekintzetan parte hartzera. >j.l.